

## KEINUEN BIDEZ KOMUNIKATZEN NAIZ

### 1.- Deskribapena

Keinuen bidez pertsonaiak antzeztean datza.

### 2.- Helburuak

- Hitzik gabeko komunikazioa lantzea.
- Zenbait balore garatzea, besteak beste, lankidetzak.
- Aurreiritzi sexistak ezabatzea.

### 3.- Partaideak

6 urtetik aurrera.

### 4.- Garapena

Haurrak zirkulu bat osatuz lurrian eseriko dira. Haur bakoitzari antzeztuko duen pertsonaia idatzita dagoen paper bana emango diogu. Adibidez: Zirkoko malabarista bat zara. Margolari bat zara. Lorezain bat zara. Sendagile bat zara. Jokalari bati keinuen bidez bere pertsonaia antzezteko eskatuko diogu. Bitartean, gainerako haurrak pertsonaia asmatzen saiatuko dira. Inork asmatzen ez badu, pertsonaia antzezten ari denak beste haurren bati laguntza eskatuko dio; bere paperean jartzen duena belarrira esango dio eta lagunak ere pertsonaia berbera antzeztuko du.

### 7.- Ebaluazioa

Jolasa amaitu ondoren, hurrei galdera hauek egin diezaikegu:

Isiltasuna beharrezkoa iruditzen al zaizue zerbaiti buruzko gogoeta egiteko? Hitz egiterakoan keinuak egiten al dituzue? Keinuen gure burua hobeto adierazten laguntzen al digute? Lanbideren batek harritu egin al zaituzte? Emakumeek eta gizonek lan berberak egin ditzaketela uste al duzue?

Gauza jakin bat esan nahi duten keinuak aipatu; adibidez, haserre gaudenean bekokia zimurtzea, zerbait gustatzen zaigunean txalo egitea.

### 8.- Iturria

Orlick, Terry. *Libres para cooperar, libres para crear*. Ed. Paidotribo

## **ERANSKINA**

### **Lanbideak:**

sukaldaria  
etxekogizona  
idazkaria  
saltzailea  
ile-apaintzailea  
kutxazaina  
erizaina  
dantzaria  
umezaina  
mekanikoa  
atezaina  
kontularia  
banketxe bateko zuzendaria  
sendagilea  
pilotua  
trapu-biltzailea  
arotza  
injinerua  
governuko presidentea  
arrantzalea  
abokatua  
bizargina